Atarrabiako Udala
Ayuntamiento de Villava
31610 NAFARROA - NAVARRA

Atarrabiako Udaleko udal taldeek, Atarrabiako jaiak egin ohi diren datak gertu ditugun honetan, honako ADIERAZPENA eman nahi dute ezagutzera:

AURTEN EZ DA ATARRABIAKO JAIRIK OSPATUKO. Bizi dugun osasun-alertako egoerak eragotzi egiten du jaiak normaltasunez gozatzea. Pandemiaren egoera eta bilakaera zein den ikusita, erabaki hori, zalantzarik gabe, har genezakeen zentzudunena eta solidarioena da. Erabaki hori udal talde guztiek adostu dute, Jai Batzordeak bere garaian egindako iritzia ikusita.

Era berean, Udaleko udal-talde guztiok jakin badakigu, eta datuek hala erakusten dute, Nafarroako herri batzuetako eta besteetako "ez jaietan" gertatu diren jokabide eta gertakariek gaixotasunaren berragerpen garrantzitsuak ekarri dituztela, horrek dakarren guztiarekin. Jakina da, halaber, gaixotasuna batez ere gizartean eta familian transmititzen ari dela.

Denok ditugu gaixotasun hau hilgarria ez ezik, bereziki arriskutsua gerta dakiekeen pertsonak inguruan. Atarrabian beste udalerri batzuetan baino eragin txikiagoa izan arren, heriotza-tasa handia izaten ari da; horrek gogorarazten digu arriskua oraindik ere udalerrian dugula. Horregatik, pertsonen bizitza arriskuan jartzen duten portaera sozialak saihestu behar dira.

Horregatik guztiagatik, honako hau JAKINARAZTEN eta eskatzen diogu Atarrabiako jendarteari:

1. Udalak Atarrabiako jaiei dagozkien ekitaldi guztiak bertan behera utzi ditu, eta herritar guztiak animatzen ditu erabaki horrekin bat egitera eta inolako jai-ekitaldi pribaturik ez egitera, bai eta egun horietan hain ohikoak diren familia-bilerak edo bilera sozialak saihestera ere.

2. Gure jaiak ospatu ohi diren egunetan, herritar guztiek bizimodu normala egitea, osasun-agintariek ezarritako prebentzio-neurriak azpimarratuz.

3. Jarrera kritikoa izatea guztion segurtasuna arriskuan jartzen duten jokabideekin. Ildo horretan, dei berezia egiten diegu gure herriko elkarte, talde, koadrila eta abarrei ahalegina egin dezaten eta beste udalerri batzuetan ikusi ditugun ekitaldiak eta irudiak saihestu ditzaten.

Udalak beharrezkoak diren baliabide guztiak jarriko ditu egun horiek herritarrentzako arrisku gehigarririk izan ez dezaten eta osasun arauak eta gomendioak bete daitezen.

Badakigu erronka kolektiboa dela, eta herritar guztien inplikazioa behar dugu. Dena gure alde jarri behar dugu, ziur gaude horrela izango dela. Inoiz baino gehiago, pertsona arduratsuak eta solidarioak izan behar dugu.

PSN PSOE

NA+ NAVARRA SUMA AYUNTAMIENTO DE VILLAVA

atarrabia GEROABAI

izquierda ezkerra

ehbildu

batzarre

Atarrabiako Udala
Ayuntamiento de Villava
31610 NAFARROA - NAVARRA

Los grupos municipales del Ayuntamiento de Villava ante la cercanía de las fechas en las que habitualmente se celebran las Fiestas de Villava quieren dar a esta DECLARACIÓN:

ESTE AÑO NO SE CELEBRARÁN NUESTRAS FIESTAS DE VILLAVA. La situación de alerta sanitaria que estamos viviendo impide que las podamos disfrutar con la normalidad habitual. Viendo cuál es la situación y la evolución de la pandemia, esta decisión es sin duda la más sensata y solidaria que podíamos tomar. Esta decisión ha sido consensuada por todos los grupos municipales visto el dictamen que la Comisión de Fiestas elaboró en su día.

Así mismo, todos los grupos municipales del Ayuntamiento, somos conscientes, y así lo demuestran los datos, que los diferentes comportamientos y episodios que se han ido sucediendo en las diferentes "no fiestas" de algunos pueblos de Navarra, han supuesto importantes rebrotes de la enfermedad con todo lo que ello supone. También es sabido que la enfermedad se está transmitiendo principalmente en el ámbito social y familiar.

Todos/as tenemos personas alrededor a las que esta enfermedad le puede resultar especialmente peligrosa por no decir letal. Cabe recordar que en Villava pese a tener una incidencia menor que en otros municipios, el índice de mortalidad está siendo alto; lo cual nos recuerda que el riesgo sigue presente en nuestro municipio. Es por ello que hay que evitar comportamientos sociales que pongan en riesgo la vida de las personas.

Por todo ello COMUNICAMOS y pedimos a la sociedad Villavesa:

1. Que el Ayuntamiento ha suspendido todos los actos correspondientes a las Fiestas de Villava, y anima a toda la ciudadanía a unirse a esta decisión y a no celebrar ningún tipo de acto festivo privado, así como a evitar cualquier tipo de reunión familiar o social tan propias de estas fechas.

2. Que en las fechas en las que habitualmente hubiésemos celebrado nuestras Fiestas, toda la ciudadanía haga una vida normal, poniendo énfasis en las medidas de prevención establecidas por las autoridades sanitarias.

3. Que tengamos una posición crítica con los comportamientos que ponen en peligro la seguridad de todos/as. En este sentido hacemos un especial llamamiento a las sociedades, colectivos, cuadrillas, etc… de nuestro pueblo, para que hagan un esfuerzo y eviten los actos e imágenes que hemos visto en otros municipios.

El Ayuntamiento pondrá todos los medios necesarios para que estos días no supongan un riesgo adicional para población y se cumplan las normas y recomendaciones sanitarias.

Somos conscientes de que este es un reto colectivo y necesitamos la implicación de toda la ciudadanía. Debemos poner todo de nuestra parte, tenemos la seguridad de que así será. Más que nunca debemos ser personas responsables y solidarias.

PSN PSOE

NA+ NAVARRA SUMA AYUNTAMIENTO DE VILLAVA

atarrabia GEROABAI

izquierda ezkerra

ehbildu

batzarre